ERES GIPUZKOA

ANIZTASUNA
Ekintzailetzan



06.
11.
2026

LAN TALDEA
Sorginlore Gizarte Elkartea | Dot. | Impact Hub Donostia

BABESLEA
Gipuzkoako Foru Aldundia

DISEINUA
Sorginlore Gizarte Elkartea

ARGAZKIAK
Luz Norte Films

ITZULPENA
Elegin Euskara Zerbitzua

SARRERA

Plazer handia izan da **hamabost ekintzaile** hauekin solasean aritzea. Nork bere arlotik, nork bere ibilbidetik, ilusioz beteriko hazitxoa jartzen du. Hasieran, zaila zirudien hamabost pertsona hauen artean zerbait komunean aurkitzea. Baina elkarrizketak aurrera egin ahala, badira errepikatzen diren keinuak, hitzak eta emozioak. Batez ere, begirada: begiak distiratsu, eta beraien proiektuez hitz egitean erakusten duten grina.

Gipuzkoan ekintzailetzak ibilbide luzea izan arren, haren inguruko iruditeria oraindik ere mugatua da. Sarritan, hazkunde ekonomikoarekin, berrikuntzarekin edo enpresa-arrakastarekin lotzen da, eta horrek beste ekintzailetza-motak itzalean uzten ditu. Bilduma honek askotariko ibilbideak eta lan egiteko erak dituzten ekintzaileen ahotsak lehen planoan jarri nahi ditu.

ERES Gipuzkoa proiektuaren helburua Gipuzkoako gizarte-ekintzailetzaren aniztasunari lekua eta ikusgarritasuna ematea da, ekosistema irisgarriago pluralago eta inklusiboago bat sustatzeko. Esparru horretan sortu da *Aniztasuna Ekintzailetzan:* voces emprendedoras egitasmo pilotua. Proiektuak hamabost ekintzaile gipuzkoarren esperientziak bildu ditu, haien ekimenak, ekiteko motibazioak, erreferenteak, erronkak, jasotako laguntzak eta Gipuzkoako ekintzailetzari buruzko ikuspegiak ezagutzeko.

Elkarrizketa hauen bidez, protagonistei beren istorioak beren ahotsetik kontatzeko lekua eskaini nahi izan diegu, aldi berean ekintzailetzaren kontakizun nagusia zalantzan jarriz. Abiapuntu ezberdinak daude, ez dago ekiteko ibilbide bakarra, ezta arrakasta ulertzeko modu bakarra ere. Esperientzia hauek erreferente berriak zabaltzea, ekintzaileen arteko sareak indartzea eta ekintzailetzaren dimentsio soziala, kulturala eta komunitarioa aitortzea dute helburu.

Hamabost elkarrizketa hauek hamabost proiektu baino gehiago dira: ekiteko hamabost modu, hamabost begirada eta hamabost istorio. Guztien artean, ekintzailetzaren beste aurpegi bat erakusten dute; anitzagoa, hurbilagoa eta, batez ere, errealagoa.

Ekimena

Ni kulturgintzan aritzen naiz, batez ere sorkuntza artistikoan: literaturan, bertsolaritzan eta prentsako kolaborazioetan. Duela urtebete inguru hasi nintzen modu honetan, autonomoan.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Nik ez dut empresaren logikarekin funtzionatzen. Ez dut pentsatzen bakarrik irabazietan. Nire logika ez da ahalik eta gehien egingo dut lan diru asko irabazteko. Alderantziz: lan gutxiago egin eta gehiago paseatu ahal badut, niretzat hori hobea da.

Beraz, nire motibazioa izan zen ikustea gutxienez urtebetez horretatik bizi ahal izateko aukera neukala. Zorionez, nire inguruan badaukat sokuntzan urte asko daramatzan jendea, ni baino zaharragoa dena eta esperientzia daukana. Haiekin hitz egitea pentsatu nuen: zergatik ez probatu?. Azkenean ausartu nintzen, eta egia esan oso pozik nago.

Gainera, 15 urte daramatzat plaza publikoan, podcastak egin ditut, aspalditik idazten dut prentsan eta bersolaritzan bederatzi urterekin hasi nintzen. Urte asko daramatzat horretan eta jendeak nirekin kontatzen du. Horregatik, autonomo izatea niretzat aurretik egindako ibilbidearen jarraipen naturala izan da, ez erabateko aldaketa ba.

Erreferenteak

Nire erreferente nagusiak nire ofizioko kideak eta lagun sortzaile autonomoak dira. Urte asko daramatzaten pertsonak ikusten ditudanean, horrek erakusten dit posible dela bide hau egitea eta sorkuntzatik bizitzea.

Nire inguruko jende hori ere nire babes sarea da. Zalantza bat dudanean, badaukat norengana jo. Aurrekontu bat egin behar badut eta ez badakit zenbat kobratu, galdetu egiten dut. Askotan, lagun batekin kafe bat hartzen ari naiz eta laneko kezka bat ateratzen da; berak erantzun bat ematen dit eta gero beste gauza batzuez hitz egiten jarraitzen dugu. Niretzat oso naturala da.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA





Erronkak

Nire lekua aurkitzea eta nire buruarekin konfiantza izatea da: fidatzea etorkizunean lana etorriko dela, eta bide honetan jarraitzeko aukera izango dudala.

Ezegonkortasuna dago. Gure lana oso lotuta dago jendeak gurekin kontatzeari.

Burokrazia, ez zait guztatzen: aurrekontuak, tramiteak, zergak eta bestelako kontuak... Nik idazlea izan nahi dut eta ez administzatzailea.

Informazio falta gehitzen zaio. Ez dakit eta zer eskubide ditudan, baja hartu ahal dudan, zer dagokidan edo zer ez. Badakit nire ardura ere badela informazio hori bilatzea, baina eskertuko nuke informazioa eskuragarriago egotea.

Laguntzak

Ez dut dirulaguntzarik eskatu eta ez naiz ekintzailetzarekin lotutako espazioetara joan. Ekintzailetza hitza bera arrotza egiten zaidanez eta mundu hori distantziaz bizi dudanez, ez dut pentsatu niretzako moduko espaziorik egongo zenik.

Nire laguntza nagusia lagunena izan da. Nire inguruan antzeko jardueretan aritzen den jendea daukat. Nire laneko arazoen konponbidea eman didaten pertsonak, askotan, nire bizitzako beste arloetako arazoak konpontzen lagundu didaten pertsona berak dira.

Familia beti izan dut alboan. Nire gurasoek agian nahiago izango lukete irakaslea izatea, bizimodu lasaiagoa izango nukeelako, baina azkenean nire erabakia ulertu eta babestu dute. Informazioa bildu ondoren, autonomo izatea pauso logikoa iruditu zitzaien.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Nire ustez, ekintzailetzaren inguruan dagoen irudia oso zehatza da. Sare sozialetan, adibidez, pertsona mota bat agertzen zait: nire adinekoa edo pixka bat zaharragoa, trajearekin edo korbatarekin, munduko beste puntara lanera joaten dena, merkatua aztertzen duena, gauza berritzaileak egin nahi dituena eta irabaziei begira dagoena. Irudi hori oso kapitalista, maskulinoa eta lehiakorra iruditzen zait. Legitimoa dela ulertzen du, baina ez da nire mundua eta ez zait gustatzen.

Horregatik, niretzat ekintzailea hitza erabiltzen dudanean, begirada asko murrizten zait. Ingurura begiratuz gero, jende pila bat dago bere denda txikia montatzen, artisau-lanetan edo bere kabuz lanean. Baina ez diet ekintzaile deitzen. Niretzat dendaria dendaria da, ileapaintzailea ileapaintzailea eta idazlea idazlea. Gero, administratiboki, autonomoak dira.

Ekintzailetza ez da lan bat edo lanbide bat; gauza batzuk multzokatzeko eta legitimatzeko sortu den kontzeptu bat da. Eta uste dut kontzeptu horrek askotan ekintzailetza erromantizatzera garamatzala: “ze ausarta, bere bidea egin du!”. Baina agian pertsona horrek ez du beste modurik bere lanagatik kobratzeko. Agian hori da egin dezakeen gauza bakarra. Horregatik, ez dut uste ekintzaile beti “nahi duzuna egitea” denik.

Bestalde, uste dut sistemak profil batzuk kanpoan uzten dituela. Kulturgintzan, adibidez, bertako gizon zuriaren profila da nagusi oraindik, eta beste profil batzuk gutxiago agertzen dira. Faktore asko egon daitezke tartean: beldurra, ausardia falta edo aukera ekonomiko eta sozial desberdinak. Sistema berak gorputz eta profil batzuk kanporatzen ditu leku askotan, eta uste dut hori ekintzailetzan ere gertatzen dela.

Ekimena

Lolak gara, antzerki sorkuntzan aritzen den kolektiboa. Irene Hernando, Esti Curiel eta Amaia Ruiz de Galarreta gara, eta 2025ean sortu genuen proiektua. Duela urtebete elkartu ginen hirurok egonaldi batean, eta orduan jarri genion izena proiektuari. Hasieratik argi geneukan kolektibo bezala egin nahi genuela lan: denok dena egitea eta modu horizontalean lan egitea nahi genuen. Lehenengo proiektua Estik antzezlan bat egiteko zuen ideia batetik sortu zen. Guri parte hartu nahi genuen galdetu zigun, eta horrela sortu zen aukera.

Aktore izateaz gain, sortzaile izan nahi dugu. Beste konpainientzat lan egin izan dugu, eta hor ohikoena da proiektu batera joatea, gidoi bat jasotzea eta zuzendariak esaten duena egitea. Guk, ordea, badugu zer esan eta beste ikuspegi batetik ekarpenak egin nahi ditugu. Gainera, gure ikasketetan horretarako prestatu gara.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Sortzeko dugun beharretik sortu zen gure proiektua. Bihotza jartzen dugu egiten dugun horretan, baina gizartearen behar bati erantzuten diogula ere sentitzen dugu. Honetarako balio badugu, horretan sinesten badugu eta prestatu bagara, gure lana jendearen zerbitzura jarri nahi dugu. Publikoaren harrera positiboak jarraitzeko indarra ematen digu, batez ere belaunaldi desberdinetako emakumeena. Hala ere, ez dugu nahi emakumeak izateagatik, emakumeei buruzko gaiak lantzeagatik edo euskaraz aritzeagatik soilik baloratzea: egiten dugun lan profesionalagatik aitortuak izan nahi dugu.

Lola antzezlan zehatz bat sortzeko ideiatik abiatu zen, baina hasieratik erabaki genuen kolektiboki lan egin nahi genuela. Lehen proiektuaren ondoren, horrela jarraitzea aukeratu genuen. Aktoreak izateaz gain, sortzaileak ere bagara: badugu zer esan, prestakuntza daukagu eta geure ikuspegia eskaini nahi dugu. Nekatuta geunden besteek gu aukeratzeko zain egoteaz, castingetan etengabe epaituak izateaz edo gure balioekin bat ez datozen pertsonaiak antzezteaz.

Lan egiteko beste modu bat posible dela erakutsi nahi dugu, hierarkiarik gabe, horizontaltasunez eta zaintza erdigunean jarrita. Ez genuen edozeinekin elkartu nahi; gure artean energia, profesionaltasuna, errespetua eta goxotasuna aurkitu genituen. Bakarka lan egiteko gai garela badakigu, baina oraingoan elkarrekin egin nahi genuen: elkarrekin, mesedez.

Gure balioek eta lan egiteko moduak koherenteak izan behar dute. Ezin dugu sororitateaz, amatasunaz, hilerokoaz edo emozioez hitz egin, gero eguneroko lanean horiek kontuan hartu gabe. Horregatik, elkarri entzuten diogu eta nola gauden galdetzen dugu lanean hasi aurretik. Oraingoz, bizitzeko beste lan batzuk egin behar ditugu, baina gure proiektua zaintzen eta elikatzen jarraituko dugu, gure alea jarri eta gauzak beste era batera egin daitezkeela erakusteko.



Erronkak

Burokrazia, erakundeekin harremana. Eginez ikasten duzu, baina prozesua ez da beti erraza.

Laguntzak

- Lolak bezala, elkarri laguntzen diogu.
- Jo ditugun ateak ireki egin zaizkigu, eta laguntzeko prest dagoen jendea aurkitu dugu. Batzuetan ahazten zaigu laguntza eska dezakegula.
- Garaion, hor egon ginen eta kriston plazerra. Beste era bateko laguntza jaso genuen.
- Eusko Jaurlaritzako laguntza bat jaso genuen.
- Familiarekin bizitako esperientziek ere eragina izan dute: batetik kulturarekin lotutako esperientziak izan ditugu, eta bestetik, ekintzailetzarekin lotutakoak.
- Bakoitzak duen ibilbidea eta urteetan jasotako eskarmentua ere laguntza eta baliabide izan dira.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Ez dugu beti gure burua ekintzaile gisa ikusi. Ekintzaileak garela badakigu, egiten dugunagatik, autonomoak gara, baina guretzat ez da etiketa garrantzitsuena: gure bizimodua eta aukeratutako bidea da. Ekintzailetza, sarritan, gorbatadun enpresariekin, salmentekin eta dirua irabazteko negozioekin lotzen da. Emakume ekintzailea, berriz, artisautzarekin erlazionatzen dela gehiago, uste dugu.

Gu, behar bati erantzuteko eta egiten dakiguna egiteko ekiten hasi ginen. Puntu batean, guretzat, ekintzailea ameslaria da, bere bizitza sortzeko arriskua hartzen duen norbait; baina amets horren atzean sekulako lana dago.

Gure ekintzailearen definizioaren barruan, gurea bezalako antzerki-proiektu batek lekua dauka, baina gizartearen iruditerian ez horrenbeste. Askotan, ez gaituzte ekintzailetzat hartzen, titiriteratzat baizik. Ez dugu ikusten bazterketa zuzena dagoela, baina, batzuetan ez gara erabat hartuak edo ongi etorriak sentitu.

Antzerkigintzan lehia badago, batez ere emanaldiak lortzeko orduan. Lan handia dago ikuskizun baten atzean, eta programatzaileei gure lana saldu behar diegu. Konpainia handiek konfiantza handiagoa ematen diete; horregatik, askok ez dute konpainia txikiei aukera emateko arriskurik hartzen. Guk argi geneukan zer eskaini nahi genuen, eta geure lekua aldarrikatu behar izan dugu, profesionalki aintzat har gaitzaten.

Gainera, profil asko falta dira oraindik: esploraziozko performanceak, aktore ugariko taldeak edo emakumez osatutako konpainiak, besteak beste. Zuzendari emakumeen eta gizonen artean ere desberdintasunak daude. Bidean gaude sektorea anitzagoa izateko, baina nahasketa handiagoa eta arrisku gehiago behar dira.

Ekimena

2019an jarri nuen martxan Irrika Gluten Free Bakery, glutenik gabeko okintza eta gozogintza osasuntsua modu artisauan egiteko. Obradore osasuntsu bat sortu nahi nuen, etxean jaten dugun moduarekin bat datorrena, jaten duguna garela uste baitugu. Betidanik gustatu izan zaigu zero kilometro produktu ekologikoak eta kalitatezko lehengaiak erabiltzea.

Baserri hau nire amaren jatetxea zen. Janari makrobiotikoa, begetarianoa eta denetik pixka bat prestatzen genuen, batez ere guk ekoitzitako elikagaiekin. Amak erretiroa hartuko zuela esan zidanean, negozioarekin jarraitzeko aukera eman zidan. Nik beste norabide bat eman eta glutenik gabeko obradore bat sortu nahi nuela erantzun nion.

Izenaren bidez, nire semearen irudia egotea nahi nuen. Irrika gaztelaniaz deseo da, eta logotipoan agertzen den irribarrea nire semearena da.

Denontzat egokia izango zen aukera osasungarri eta glutenik gabea sortu nahi nuen, guztiok batera jan ahal izateko. Askari batean, adibidez, haur zeliakoei sarritan esan behar zaie ezin dutela hau edo bestea jan, eta gaizki pasatzen dute. Horregatik, denontzat gauza bera egotea nahi nuen.


Bidean, glutena, esnea, arrautza edo proteina jan ezin duten pertsona asko ezagutu ditut. Beti prest nago laguntzeko, goxoak edota ogiak egiteko behar den eran. Gure produktu guztiak ez dira beganoak, baina publiko guztiarentzako alternatibak ematen ditut. Honetarako bizi naiz: nire etxekoei eta bezeroei onena emateko.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

2019an, nire semeari eta bioi zeliakia diagnostikatu ziguten. Oihanek lau urte zituen. Nik betidanik izan nituen tripako min izugarriak, gastroenteritisak eta bestelako arazoak. Inoiz ez zidaten probarik egin, eta dieta pila bat probatu nituen zerk egiten zidan kalte jakiteko. Inoiz ez nuen pentsatuko ogia izango zenik arazoa. Guretzat ogia beti izan da sakratua, etxekoa zen, amamak egiten zuen.

Semea beti txikia zen, pertzentiletik kanpo, eta motelduta eta triste ikusten genuen. Lau urterekin parkean jolasten ari zela, bihotza lekutik atera behar zitzaiola esan zigun. Bihotza ziztu bizian zeukan, eta ez zen lehengo aldia gertatzen zitzaion.

Medikuntza pribatura jo genuen, eta hainbat espezialista eta proba igaro ostean, zeliakiaren proba genetikoak positibo eman zuen. Nik ere gaizki nenbilela esan nuenez, niri ere egin zizkidaten probak, eta positibo eman nuen. Bioi glutena kendu zigutenean, semea hazten hasi zen eta aldaketa ikaragarria izan zuen: indartsuago eta alaiago zegoen. Nik ere esaten dut berpiztu egin nintzela. Diagnostikoa jasotzea sekulako lasaitua izan zen.



Ez nuen nahi nire semea baztertua sentitzea. Gainera, beste pertsona batzuei laguntzeko aukera ikusi nuen. Gogoan dut bi urteko mutiko baten kasua. Gurasoak etsita etorri zitzaizkidan, zerbait egiteko eskatuz. Bere lehen gailetak eta lehen bizkotxoa nireak izan ziren. Ikusten ninduen bakoitzean, poz-pozik etortzen zen besarkatzera. Horrelako uneek jarraitzeko indarra ematen didate.

Erreferenteak

Nire erreferenteak ama, Arantxa Etxabe, eta nire amona, Martina Sagasta, dira. Biek izan zuten jatetxea Bedoñan. Aiton-amonak arrautzak txorixo eta patatekin ematen hasi ziren, eta hortik, poliki-poliki, jatetxea sortu zuten.

Bizitza osoa lapiko artean eman dut. Amona eta ama sukaldatzen ikusi nituen. Sukaldean hazi naizenez, odoletan daramadan zerbait da, eta izugarri gustatzen zait. Etxean zer osagai dagoen begiratu, eta horiekin probatzen eta esperimentatzen hasten naiz.

Tabernan lanean hasi nintzenean, sukaldaritzako titulua atera nuen. Gero gozogintzako, sukaldaritza makrobiotikoko eta beganoko tituluak ere atera nituen. Baina ikasitako guztia glutenarekin egiten zen; beraz, glutenik gabeko sukaldaritzara egokitu behar izan dut.

Amak betidanik errespetatu ditu nire erabakiak. Ez zuen beldurrik, eta hau eta gehiago egiteko gai naizela esaten dit. Ni aurrera egiten duen horietako naiz.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA

Erronkak

Niregana jotzen duten pertsonen beharra asetzea da nire erronka nagusietako bat. Adibidez, proteinarik, arrautzarik, glutenik eta esnerik gabeko gozoak eta ogia egitea; edo ezkontza baterako glutenik eta fruitu lehorrik gabeko tarta bat egitea.

Ez naiz dauzkagun produktuetara mugatzen, eta ez dut aukera bat zuzenean baztertzen. Glutena ezin dut obradorean sartu, baina, hortik aurrera, pertsonak behar duenaren arabera edozer egiteko prest nago.

Laguntzak

- Nire senarrak asko lagundu dit prozesuan; nire bidelaguna da.
- Niregan sinesten duen jendea.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Ekintzaile gehiago egotea gustatuko litzaidake. Uste dut pixka bat erosoak garela eta ez garela arriskatzen. Baina zer galtzen duzu saiatzeagatik?

Gipuzkoako ekintzailetzan aniztasuna dagoela uste dut. Azoketan ikusten da ekintzaileok elkarri laguntzen diogula: elkartu, informazioa partekatu eta elkarren ondoan egoten gara.

Nik ez dakit jendeak, orokorrean, zein ideia daukan ekintzailetzaren inguruan; baina bai gertatu zitzaidan oso gauza polit bat. Enea pasteleriako bi emakumek, maiatzaren 8rako, jarri ziren nirekin harremanetan. Esan zidaten haien obradorea sortzeko ni izan nintzen beraien erreferentea, eta eskatu zidaten idaztea mezu bat beren sare sozialetan jartzeko. Noski egin nuela, eta haiek bueltan beste mezu bat egin zidaten. Niretzat oso pozgarria izan zen. Argi dago zuk ematen duzu, baina jasotzen duzuna askoz gehiago dela.

Ekimena

Arkitekto teknikoa naiz. Hasieran arkitektura-estudio batean lan egin nuen, baina estudioak 2011n itxi zuenean autonomo bihurtu nintzen. Ordutik, nire lana neure kabuz aurrera ateratzen hasi nintzen, beste arkitekto batzuekin elkarlanean. Garai hartan beste arkitekto bat ezagutu nuen eta, elkarrekin hainbat urtez lan egin ondoren, 2021ean enpresa bat sortzea erabaki genuen.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Aitak eta biok estudio berean egiten genuen lan. Estudioak itxi zuenean, nire aita erretiroa hartzeko azken urteetan zegoen eta estudioko zati txiki batekin geratu zen. Biok lan txiki batzuk egiten hasi ginen. Horregatik, autonomo izateko pausoa ematea nahiko erraza izan zen niretzat: aukera bat izan zen.

Jarraitzera bultzatzen nauena, alde batetik, lan asko izatea; inoiz ez zait lana falta izan. Gainera, nire lana asko gustatzen zait. Oso garrantzitsua da niretzat eta oso ondo sentiarazten nau. Ekintzailetzan, egiten duzunarekin maiteminduta egon behar duzula uste dut.

Beste aldetik, nire bizitza antolatzeko askatasuna ere motibazio handia da. Denbora daukat seme-alabekin egoteko eta, nire enpresa denez, ez dut etengabe azalpenik eman behar. Nire senarra 2021ean gaixotu zenean, hiru urtez etxetik lan egin ahal izan nuen arazorik gabe. Alde horretatik, ekintzaile izateak asko lagundu dit amatasunean eta kontziliazioan.

Erreferenteak

Nire aita izan da nire erreferente nagusia. Bere bizitza nolakoa zen ikusten nuen, eta gustatzen zitzaidan. Nik bizimodu hori nahi nuen niretzat. Nire aita zoriontsua zen lanean, eta nik ere nire lanarekin horrela sentitzea nahi nuen.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA





Erronkak

- Lana izatea.
- Lasai bizi ahal izatea. Seme-alabei behar duten arreta ematea eta neure bizitza nik antolatzea. Antolaketa horrek abantaila handiak ematen dizkit autonomoa izateak, nahi dudan moduan moldatu naitekeelako, baina erantzukizun handia ere eskatzen du.
- Mugak jartzea konplexua da. Arratsaldeko zazpietan deitzen badidate, telfonoa hartzeko beharra sentitzen dut. Denborarekin ikasi behar da noiz erantzun eta noiz ez.

Laguntzak

Hasieran nire aita laguntza handia izan zen. Gaur egun, nire bazkidea da nire laguntza nagusietako bat. Berarekin lan egitea ez da erronka bat, lagunak garelako eta erabateko konfiantza dugulako. Zerbait ondo ez doanean nori deitu edukitzea oso garrantzitsua da. Nire ibilbidean ez naiz inoiz bakarrik sentitu.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Ekintzailetzaren inguruan iruditeria asko dago, baina arrakasta izugarria lortu duten pertsonez bakarrik hitz egiten da. Niretzat, nik arrakasta izan dut: lan asko daukat, bazkide zoragarria daukat eta ez zait ezer falta. Arrakasta ez da soilik milioidun bihurtzea. Diruaz gain, beste gauza asko hartu behar dira kontuan: gustuko lana edukitzea, lasai bizitzea, familia zaintzeko aukera izatea eta alboan konfiantzazko pertsonak edukitzea.

Interneten ekintzailetzari buruz galdetuz gero, betiko arrakasta-kasu handiak agertzen dira. Inork ez du etxe azpiko ile-apaindegiaz hitz egiten. Hala ere, nire ustez, eguneroko ekintzaile txiki horiek dira garrantzitsuenak. Lana sortzen dugu, baina gizarteak ez gaitu arrakasta duten ekintzailetzat ikusten, eta are gutxiago emakumeak bagara.

Nire amaren belaunaldian ez dut ia emakume ekintzailerik ezagutzen. Nire ama nire gelako ama langile bakarra zen. Beste ama bat etxean estetika-lanak egiten hasi zen, eta garai hartan hori sekulakoa zen. Oso emakume gutxik egiten zuten lan, eta lan egiten zutenek normalean administrari gisa edo antzeko lanpostuetan jarduten zuten.

Nire sektorean, gero eta arkitekto gutxiagok sortu nahi dute beren estudioa. Lehen, jende askok estudio propioa edukitzea zuen helburu. Gaur egun, askok nahiago dute administrazioan lan egin, ordu jakin batean etxera joan eta lanaz ahaztu. Nire ustez, arkitekturaren sektorean ekintzailetza galtzen ari da.

Egoera aldatzen ari da. Belaunaldi berrietan gero eta emakume arkitekto gehiago ezagutzen ditut, eskulanaren arloa alde batera utzita. Hala ere, haietako askok ez dute ekintzaile izan nahi, eta lanaldi egonkorragoa ematen dien lanpostu bat nahiago dute. Hautu hori ulertzen dut, ekintzaileak norberaren denbora antolatzeko askatasuna ematen badu ere, lana etxera eramateko arriskua ere badakarrelako. Gaur egun emakumeok gure lekua hartu dugu ekintzailetzaren munduan, eta ez dugu emakume izateagatik beldurrik. Nire ikuspegitik, Gipuzkoako ekintzailetzan aniztasuna dago eta sektorean genero-alborapena gero eta txikiagoa da.

Ekimena

Alexa Nacir naiz eta nire proiektua psikologiaren begirada hurbilean oinarrituta sortu da. Beren burua hobeto ulertu eta entzun nahi duten pertsonei laguntzen diet, sentitzen dutenari eta emozioekin duten harremanari arreta handiagoz begiratzeko.

Nire lana batez ere indibiduala da, baina elkarte, erakunde eta enpresentzako prestakuntzak ere diseinatu eta ematen ditut, besteak beste, sexualitateari, ikuspegi intersekzionalari, arrazakeriaren aurkako ikuspegiari, kultura-aniztasunari, diskriminazioaren prebentzioari, hezkuntza emozionalari eta autoezagutzarako idazketa terapeutikoari buruz. Azken horiek "idatziz hausnartzeko" modu gisa definitzea gustatzen zait.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Ekintzaile izatera bultzatu ninduen arrazoietako bat, beste pertsona batzuentzat lan eginez, edozein momentutan bota nazaketela konturatzea izan zen. Sentitzen nuen ez zitzaidala beti arreta errealik ematen langile gisa.

Pertsona migratu gisa izan nuen esperientziak ere eragin handia izan zuen. Askotan, migratzen duzunean, ezin duzu zure lanbidean jardun sistemak ez dituelako automatikoki zure ikasketak onartzen. Horren ondorioz, lan mota jakin batzuetan sailkatu ohi gaituzte, sarritan gure jatorriaren arabera.

Niretzat, ekitea askatasuna berreskuratzeko modu bat izan zen. Nire lana antolatzeko, erabakiak hartzeko eta kontziliatzeko askatasuna. Orain kontsulta orduak nire haurraren ordutegietara egokitu ditzaket, eta hori oso garrantzitsua da nire bizitzako une honetan.

Niretzat, ekiteak norberaren aldeko apustua egitearekin ere badu zerikusia. Beti esaten dut "ekitea ez dela erokeria bat, norberaren aldeko apustua egitea baizik". Nire kasuan, egiten dudan horretan sinesten dut, eta uste dut beharrezkoa dela.

Erreferenteak

Nire ibilbidean, oso pertsona garrantzitsua izan nuen bidelagun: Madrilen bizi eta lan egiten duen herrikide psikologo bat. Sare sozialen bidez ezagutu nuen eta idaztera animatu nintzen.

Berak zer egin zuen kontatu zidan, bere ibilbidea azaldu zidan, eta asko lagundu zidan zerbait esan zidan: «Zuk terapeuta gisa lan egin dezakezu». Batzuetan, bide hori dagoeneko egin duen norbaitek posible dela eta zuk ere egin dezakezula esatea behar duzu.



Erronkak

- Alderdi ekonomikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak pisu handia dute, batez ere hasieran.
- Lan hau oso bakartia izan daiteke. Horregatik, niretzat, ongizatea eta norbere burua zaintzea etengabeko erronkak dira.
- Ni bezalako jendearentzako babesleku bat, sektore sozialean ekiten ari garen pertsonentzat. Zalantzak, beldurrak, baliabideak eta esperientziak partekatzeko guneak, nondik ekiten ari zaren ulertzen duten pertsonekin.

Laguntzak

SARTU elkartea. Han formazioak jaso nituen eta pertsona batek urtebetez lagundu zidan ekiteko prozesuan.

Sare sozialak ere funtsezkoak izan dira. Nire diru iturria dira, baina baita herrikideekin, erreferenteekin eta egiten dudanarekin identifikatuta sentitzen diren pertsonekin konektatzeko modua ere.

Nire bikotekidea hor dagoela jakitea. Bere laguntza izateak eta etxeko gastuei aurre egiteko lan bat duela jakiteak oinarri bat ematen dit proiektu honi eutsi ahal izateko.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Gipuzkoako ekintzailetzaz pentsatzen dudanean, iruditzen zait babes eta aitortza handiagoa jasotzen dutela zerbait ukigarria sortzen duten ekintzaileek. Gizarte-arloko zerbitzuek, aldiz, ziurgabetasun handiagoari egin behar izaten diote aurre.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA

Uste dut ez garela bizi ekintzailetzarako hezitako gizarte batean. Askotan lotsa, errua edo beldurra agertzen da. Aurrezki batzuk badituzu eta ekitea erabakitzen baduzu, berehala esango dizu norbaitek: "Burua joan zaizu? Hobe zortzietatik bostetara lan egitea, seguruagoa baita ".

Atzerritar asko ere ikusten ditut ekiten, baina neure buruari galdetzen diot zer motatako ekintzailetza espero den gugandik. Askotan lokutorio, fruta-denda, ile-apaindegi edo ostalaritzarekin lotzen gaituzte. Eta, negozio horien inguruan, honako komentario hauek entzuten dira oraindik: "Nondik ateratzen da dirua?" edo "ea zenbat irauten dion".

Uste dut iruzkin horien atzean mesfidantza begirada bat dagoela. Pertsona batzuek pentsatuko balute bezala: "Nik bizitza osoa daramat hemen lanean eta ezin dut gustuko ez dudan lana utzi; nola pertsona honek, lauzpabost urte hemen daramatzanak, dagoeneko negozio bat du?".

Niretzat, "ekintzaile" hitza oso polita eta bisuala da baliabideak dituzten pertsonei aplikatzen zaienean. Sozialki badirudi dirua, kontaktuak edo segurtasun-sare bat duenak ekiten duela. Baina denok ez gara leku beretik hasten.

Ekintzailetza maratoi bat bezalakoa da: denok ari gara korrika, baina denok ez gara lauki beretik ateratzen. Pertsona batzuek aurrezkiak, laguntzak eta esperientzia dituzte; beste batzuek ez.

Hala ere, aniztasuna ere hor dagoela uste dut, eta aniztasun horri esker nago gaur hemen eserita. Aniztasun horrek bideak irekitzen ditu, erreferenteak sortzen ditu eta ekiteko beste modu batzuk irudikatzeko aukera ematen digu.

Ekimena

La Bombonera 2023an sortu zen. Espazio honetan kantu tailerrak eskaintzen ditugu, banaka zein taldeka, idazketa, irakurketa, musika, yoga, antzerkia eta diziplinarteko abesbatza talde bat. Abesbatza da, ziurrenik, zoriontsuena egiten nauena.

Diziplinarik gabeko arte-espazio batez ari naizenean, adierazpen espazio batez ari naiz. Niretzat oso garrantzitsua zen diziplina zehatz baten barruan ez katalogatzea.

La Bombonera izenak artearen alderik gozoenarekin konektatzen du. Gainera, zarata handia egiten duen espazio txiki bat da.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zidaten eta geldialdi bat egin behar izan nuen kantu eta antzerki klaseak ematen nituen beste lan batean. Horrelako zerbait gertatzen zaizunean, krisi batean sartzen zara: «Nor naiz orain? Zer egingo dut? Norantz noa?». Nire gorputzaren erritmoak ulertu behar nituen, artearekin eta neure buruarekin konektatuta egon. Ahizpak gogorarazi zidan zein garrantzitsua den artea niretzat.

Betidanik egon naiz artearekin lotuta, baina lan egiteko beste modu bat bilatzen nuen, komunitatea sortzeko, artera hurbildu nahi zuen edonork espazio bat izan zezan. Neure burua zaintzen ikasi behar nuen, baita orain dudan gaixotasunarekin neure burua ulertzen ere, gaixotasun horren ondorioz nire egoera une batetik bestera aldatzen baita. Gustatzen zaidana eginez neure burua zaintzeko modu bat bilatzen nuen.

Proiektu hau Pasaian egotea nahi nuen, ilusio handia egiten baitzidan hemen egiteak. Badakit artista asko dagoela herri honetan. Ni Trintxerpekoa naiz, San Pedrokoa. La Bomboneraren helburua ez da pertsona guztiak profesionalizatzera iristea, baizik eta bakoitzak bere buruari espazio hori emateko aukera izatea. Azkenean, arteak gu goratzeko balio duela uste dut. Eta goratzea esaten dudanean, bakoitzak nahi duen moduan uler dezala: osatzea, askatzea...

Egiten dudana egiten jarraitzen dut libre sentitzeko. Askatasuna falta zaidala sentitzea krisi gehien eragiten didan gauzetako bat da, eta berriro aske sentitzeko beharra nuen. Bide honetan, hain maitatua eta babestua sentitzeak laguntzen dit, inoiz ez dudala ezer egiteko beldurrik izan.



Erreferenteak

Modu inkontzientean, kontsumitu dudan arte guztiak eragina izan du nigan. Yessica Walker irakasle txiletarra ere oso garrantzitsua izan da niretzat; berak irakatsi zidan artea ikuspegi espiritualago batetik ulertzen.

Erronkak

- Ekonomia. Artearekiko maitasunagatik lan egiteak zer esan nahi duen oso ondo ulertzen dut.
- Egunerokoak oso adi egotea eskatzen du, arreta ez galtzea eta etengabe kontuak egiten aritzea.
- Tramiteek eta teknologiarekin lotutako guztiak antsietate handia sortzen didate.

Laguntzak

Barruan badut zerbait esaten didana: «Jo hemendik». Eta ez dit beldurrik ematen amildegira botatzeak. Argi daukat, gertatzen dena gertatzen dela, ezin dudala La Bombonera utzi.

Arrebak ez nau inoiz eskutik askatu.

Nire lagun Sergiok nik baino askoz gehiago ulertzen du zenbakiez, eta beti laguntzen dit arlo horretan.

Eta gero nire ikasleak daude. Badakite zer dagoen, nire barne ahotsak bezalakoak dira, zaindu eta ulertu egiten naute. Jendeak proiektu hau babesten du eta elkarrekin sortzen dugu.

Abesbatza lotura horren adibide garbia da. Magia berezia sortzen da sartu eta irteten den jendearen artean, adin desberdinetako pertsonen artean. Gainera, horietako asko ez dira Pasaiakoak ere; kanpotik datoz.

Pasaiarren babesa ere sentitzen dut. Jendea hurbiltzen da, barrura sartu, esaten dit gustatzen zaiola, hunkitu egiten dela.

Babes hori asko nabaritzen da parte-hartzean eta maitasunean, baina agian ez hainbeste maila ekonomikoan — barreak —. Baina, benetan, niretzat horrek beste gauza askok baino garrantzi gutxiago du.

Orain ekintzailetzako coach batekin ere harremanetan nago.

Eta, noski, La Bomboneraren parte diren pertsonak, Intza eta Ander bezala, euskarri handiak dira. Ander eta ni sortzaileagoak gara; Intzak oinak lurrean ditu eta ideiak zehazten laguntzen digu. Aukeratutako familia bat gara.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Ekintzailetzaz hitz egiten duzunean, nire inguruko jendeak esan ohi du lehen urteak oso zailak direla. Niri, ordea, horrek ez dit beldurrik ematen. Jendeak oso ausarta ikusten du, ia heroikoa.

Inguruan ditudan pertsona gehienak emakume ekintzaileak eta ezberdinak dira. Niretzat, ekitea guztiz normala da. Nire amak, adibidez, taberna bat ireki zuen duela urtebete; bera ere ekintzailea da. Aniztasun handia dagoela uste dut, eta ekitea pertsona askoren bizitzaren parte dela.

Ekimena

Etxez etxeko sukaldaria naiz, eta duela zortzi edo bederatzi urte hasi nuen proiektu hau.

Nire helburua da jendeak bere gonbidatuez gozatu ahal izatea, sukaldean aritzeaz arduratu gabe. Azkenean, sukaldetik askatu nahi duen edonorentzat pentsatutako zerbitzua da, etxean, gizarte batean edo beste edozein espaziotan.

Horretarako, lehenik eta behin bezero bakoitzarekin biltzen naiz, zer behar duen jakiteko. Ekitaldi puntuala izan daiteke, etxe batean hainbat egunez janaria prestatzea edo kanpotik datozen pertsonentzako gosariak, bazkariak edo afariak prestatzea. Hainbat menu proposatzen dizkiet, haiek aukeratzen dute, eta ni erosketaz, janaria prestatzeaz, zerbitzatzeaz eta dena txukun uzteaz arduratzen naiz. Nire asmoa da anfitrioiek gonbidatuez gozatu ahal izatea, sukaldeaz arduratu gabe. Taldea zortzi lagunetik gorakoa bada, beste norbaitekin joaten naiz.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Lanik gabe geratu nintzen, eta betidanik gustuko izan dudan zerbaiti berriro heltzea erabaki nuen: sukaldaritzari. Sukaldaritza eskola amaitu nuenean, duela 35 urte, hainbat jatetxetan lan egin nuen eta, sei urtez, Aieteko Jubilatuen Etxean. Zerbitzua kudeatzen zuen enpresa aldatu zenean, kontratua eten zidaten eta zerbait desberdina egiteko unea zela sentitu nuen. Sustapenarekin harremanetan jarri nintzen eta nire kabuz hasi nintzen lanean.

Pertsonekiko harreman hurbila eta janaria mimoz prestatu ahal izatea da gehien gustatzen zaidana. Askoz gehiago identifikatzen naiz amonen, izeben eta amen sukaldaritzarekin, maitasunez egindako sukaldaritza tradizional horrekin.

Lan honek ematen didan askatasunak ere motibatzen nau. Bere ziurgabetasunak ditu, noski. Aste batzuetan lan asko izaten dut eta beste batzuetan ez da ezer ateratzen, baina bizitzeko modu horrek ere badu gustuko dudan zerbait. Beti bilatu dut noiz eta nola lan egin erabakitzeko askatasun hori.

Eta, jakina, jendea gozatzen ikustea pozgarria da. “Zein gozoa!” edo “Zein ona!” entzuteak asko konpentsatzen du.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA



Erreferenteak

Nire aita nire erreferente handienetako bat izan da. Sukaldaritza ikasten ari nintzenean, arreta ematen zidan itsasontzi edo yateetarako kozinatzen zuen jendeak, zerbitzu pertsonalizatuago horrek, talde txikientzako sukaldaritza horrek.

Familia giroak ere eragin handia izan du nigan. Gure etxean beti izaten zen jendea, eta gurasoek familia-bazkariak antolatzen zituzten; sukaldaritza elkartzeko modu bat zen. Uste dut hor dagoela egiten dudanaren oinarria. Azkenean, hemen ia dena mahai baten inguruan ospatzen dugu.

Erronkak

- Administrazioarekin, burokraziarekin edo laguntza non eskatu jakitearekin lotutako guztia zaila da.
- Benetan gustatzen zaidana egiteko aukera emango didan lan bati eustea: chef izatea eta clown munduari lotuta jarraitzea.
- Jarduera hori pixka bat egonkorragoa izateko eta une baxuak hain baxuak ez izateko modua aurkitzea.

Laguntzak

Hasieratik, nik egiten dudanaren antzeko zerbait egiten zuten pertsonak aurkitu nituen, eta haiekin asko aritu naiz elkarlanean.

Take a Chef eta Airbnb bezalako plataformak eta, batez ere, ahoz ahokoa. Horrek funtziona dezan, asko mugitu behar da, ekitaldietara joan, jendea ezagutu eta presente egon. Horrela sortzen dira harremanak eta aukera bakoitzak beste berri bat irekitzen du.

Sare sozialek ere asko laguntzen didate; bertan, sukaldaritzarekin zein clownarekin lotutako edukiak partekatzen ditut. Googleko iritziak ere oso lagungarriak dira.

Nire familia.

Norberaren kontura lan egiteko aukerari irekita egotea, betiere lana antolatzeko askatasuna bilatuz.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Niretzat, ekitea beste norbaitentzat lan egin beharrean, bizimodua beste modu batera ateratzea da. Nire negozioak harridura sortzen du. Batzuek ez dakite horrelako zerbitzurik dagoenik ere, eta beste batzuek oso garestia dela uste dute. Uste dut lanbide askorekin bezala gertatzen dela: asko daude eta erdiak ere ez ditugu ezagutzen.

Ekintzailetzan aniztasun gehiagoren falta sumatzen dut. Teknologiarekin eta arlo digitalarekin lotura handia ikusten dut, baina beste esparru batzuetan ez da hain ugaria.

Gainera, etxez etxeko sukaldaritzaren munduan gehienak gizonezkoak dira. Nik beste emakume bakarra ezagutzen dut horretan aritzen dena, eta, hemen, Gipuzkoan, uste dut ni naizela emakume bakarra.

Betidanik bitxia iruditu zait, tradizioz, emakumeek etxean kozinatu izana eta gizonek sukalde profesionalaren espazioa hartu izana. Nire kasuan desberdina izan zen: etxean sukaldean aritzen zena nire aita zen, autonomoa zelako eta antolatzeko erraztasun handiagoa zuelako. Amak etxetik kanpo egiten zuen lan, eta aitak prestatzen zuen bazkaria, ama etxera itzultzen zenerako.

Ekimena

Chimeneas ERRE BERRI tximiniak saltzen, instalatze eta mantentzen dituen enpresa da. Gipuzkoan 45 urteko ibilbidea duen Chimeneas ERREren belaunaldi-erreleboaren ondorioz sortu da. Urte hauetan guztietan eraikitako esperientzia, ezagutza eta konfiantza mantendu nahi izan ditugu, baina ikuspegi berri bat ere txertatuz.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Urteak neramatzan buruan zerbait propioa sortzeko ideiarekin. Venezuelan irakasle izan nintzen, administrazio-arloan lan egin nuen, eta telekomunikazio-enpresa bat ere izan nuen, baita ingurumen-bitartekaritzako proiektuetan aritu ere. Hona iritsi nintzenean, garbiketan, gasolindegi batean, supermerkatu batean, merkataritza-sustapenean eta prestakuntza-zentro batean lan egin nuen. Esperientzia bakoitza ikaskuntza bat izan da: hemengo publikoarekin harremanak izaten ikasi nuen, beste modu batera komunikatzen eta ingurunea hobeto ulertzen.

Nire hasierako proiektua mantentze-kooperatiba bat zen, bereziki emakumeen enpleguari eta prestakuntzari lotua. Informazioa bildu, tailerretan parte hartu eta enpresa nola sortu aztertu nuen, baina, une batean, ideia alde batera uztea erabaki nuen, lanean eta ikasten jarraitzeko. Hala ere, ekiteko gogoa ez zen inoiz desagertu. 2025eko otsailean belaunaldi-errelebo honetan sartzeko aukera sortu zitzaidan, bazkide bat behar baitzuten, eta hura aprobetxatzea erabaki nuen.

Ezer ez nekien sektore batean sartu nintzen; ordura arte ez nuen inoiz tximinia bat piztu. Asko ikasi behar izan dut. Ezin izan nuen langabezia kapitalizatu, ezta zenbait laguntza jaso ere, nire borondatez utzi bainuen aurreko lana. Horregatik, nire aurrezkien zati bat inbertitu nuen. Hala ere, pentsatu nuen: beste pertsona batentzat lan egin badezaket, neuretzat ere lan egin dezaket.

Posible dela ikusteak aurrera jarraitzeko motibazioa ematen dit. Ez gauzak bakarrik iristen direlako, baizik eta trebatu, galdetu, jendea ezagutu eta sareak eraiki ditudalako. Gainera, pozgarria da nire ibilbidea beste pertsona batzuentzat eredu izan daitekeela jakitea.

Erreferenteak

- Nire aitona. Ekonomikoki posizio ona zuen, baina gaixotasun baten ondorioz dena galdu zuen. Hutsetik hasi zen bederatzi seme-alabekin eta negozio handi bat eraiki zuen berriro.
- Alfredo Sainz, Chimeneas ERREren sortzailea.
- Maitelaneko emakumeak, haien proiektua, borrokarako gaitasuna eta ehundu duten laguntza-sarea.



Erronkak

- Emakume migratu gisa, ekintzaile izateko denbora eta espazioa aurkitzea da. Iristean, lehentasuna lan egitea da, askotan lanaldi zatituekin edo ez oso erregularrekin. Orientazio- eta prestakuntza-baliabideak badaude, baina horien ordutegiak ez dira beti bateragarriak eskura dauden lanekin.
- Sektore erabat berria ikastea eta inbertsio ekonomikoari aurre egitea.
- Emozioen kudeaketa. Gelditu: arnasa hartu, distantzia hartu eta egoerari beste begi batzuekin begiratu.

Laguntzak

- CEARek, iristen denari, funtsezkoak izan diren hiru ibilbide ildo proposatzen dizkio: integrazioa, prestakuntza eta laguntza sareak.
- Bide orri horri jarraituz, boluntario izan nintzen Caritasen eta Gurutze Gorrian. Gurutze Gorriaren enplegurako orientazio-programan ere parte hartu nuen.
- ASLEk lagundu zigun lan sozietatea eratzen; Hernaniko Udalak eta Buruntzaldeak ateak ireki dizkigute, eta ikusgarritasuna eman diote bai nire ibilbideari, bai negozioari.
- Erretiroa hartu zuen pertsona ere ezinbestekoa izan da: zalantzak argitzeko deitu ahal izateak segurtasuna eman zidan lehen hilabeteetan.
- Nire familiak babestu egin nau erabaki zailak hartu eta nire osasunari lehentasuna eman behar izan diodanean.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Oraindik ekintzailetza-kultura falta dela uste dut. Askotan, ekiteari buruz hitz egiten denean, agertzen den lehenengo gauza beldurra da: kuotaren kostua, lokala, zergak edo erantzukizuna. Hori guztia existitzen da eta kontuak egin behar dira, baina ekitea ez da hori bakarrik. ETE batean, enpresaburua ez dago eserita etekinen zain: gainerako taldekideekin batera egiten du lan, arriskuak hartzen ditu, inbertitzen du eta proiektuari eusten dio.

Gipuzkoan ekintzaileen artean aniztasuna ikusten dut, nahiz eta tximinien sektorean txikiagoa izan. Oraindik deigarria da bi bazkideak venezuelarrak izatea eta emakume bat izatea alderdi komertzialaren eta kudeaketaren buru. Hala ere, bereizketa gutxitzen joan dela uste dut, eta hala egiten jarraituko duela uste dut. Enpresa askok erreleboa behar dute, arduradunek erretiroa hartu eta jarraipenik aurkitzen ez dutelako. Aldi berean, biztanleria migratu gaztea dago, ikasteko eta ekiteko gogoa duena. Elkargune horrek itxierak saihestu ditzake, eta negozioen jabetza profil anitzagoei ireki, ez soilik eskulan gisa, baita bazkide gisa ere.

Herrialde bat utzi dugunok badakigu zer den berriro hastea. Batzuetan, esperientzia horrek arriskuari begiratzeko modu berezi bat ematen du: zer gal dezaket? Ezagutza, esperientzia eta harremanak irabaz ditzaket; eta, proiektuak funtzionatzen ez badu, lan merkatura itzul naiteke. Niretzat, beldurragatik ez saiatzea huts egiteko modu bat da. Horrek ez du esan nahi ekitea hobea denik besteren kontura lan egitea baino. Bi aukerak dira baliozkoak; garrantzitsuena da konformismoak edo beldurrak ez erabakitzea gure ordez



Ekimena

Trinh naiz eta nire ekimena Ama Elur da, Vietnamgo janari tradizionaleko jatetxe bat, Donostian kokatua. Nire semeak aukeratu zuen izena. “Ama” deitzen dit eta, hona iritsi nintzenean, lagunak Elur deitzen hasi zitzaizkidan, Trinh elurra da euskaraz. Nire semeak bi hitzak batu zituen eta horrela jaio zen Ama Elur.

Donostiara iritsi nintzenean ez nekien gaztelaniaz. Lehenik, semea zaintzen aritu nintzen, eta, eskola hasi zenean, ikasten hasi nintzen. Sukaldaritzan trebatu nintzen eta Goi Mailako titulua lortu nuen. Aldi berean, arratsaldeetan urdaitegi batean egiten nuen lan. Ikasketak amaitu ondoren, lau urtez lan egin nuen jatetxea ireki aurretik, 2021eko abenduan.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Beti izan nuen gogoa zerbait propioa sortzeko eta nire buruarentzat lan egiteko. Donostian sukaldaritza ikasten hasi nintzenean, asmo hori proiektu zehatz bihurtu zen: Vietnamgo janari tradizionaleko jatetxe txiki bat irekitzea.

Hirian horrelako proposamen bat falta zela sentitzen nuen. Hainbat lekutako jatetxeak zeuden, baina bakar bat ere ez nire herrialdeko gastronomian espezializatua. Ikusi nuen zerbait berezia eskain nezakeela eta, aldi berean, vietnamdar kultura bere sukaldaritzaren bidez ezagutarazi.

Hona etorri aurretik Vietnamen lan egin nuen turismo enpresa batean, gero sukaldaritzan trebatu nintzen eta hainbat urtez sektorean lan egin nuen. Ibilbide horrek guztiak nire negozioa martxan jartzeko prest nengoela sentitzen lagundu zidan. Orain badakit nola egin nahi ditudan gauzak. Nire buruarentzat lan egiteak zoriontsu sentiarazten nau, eta nire esperientziaren eta nire lanaren balioa aitortzeko aukera ematen dit.

Jarraitzera bultzatzen nauena nire ametsa da. Gainera, pertsona langilea, positiboa eta energia handikoa naiz. Egiten dudanarekin oso pozik nago eta jatetxea mantendu, ondo zaindu eta haztea nahi dut.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA



Erreferenteak

- Nire aitona. Ekonomikoki posizio ona zuen, bNire familia. Amak janaria saltzeko postu txiki bat zuen, aitona sukaldaria zen eta nire izebetako bat cateringean aritzen zen. Txikitatik egon naiz sukaldetik gertu.
- Ho Chi Minheko lagunak, oso ondo funtzionatzen duten jatetxeak dituztenak. Vietnamen ekitea eta hemen egitea esperientzia desberdinak badira ere, haien ibilbideak ezagutzea erreferentzia izan da niretzat.
- Donostian badut lagun bat beste sektore batean hasi zena eta arropa-denda bat duena. Ama Elurrek ondo funtzionatzen duela ikusita, nirekin etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko interesa agertu du. Garrantzitsua da negozio bat abian jartzeko esperientzia bizi izan duten pertsonak gertu izatea.

Erronkak

- Hizkuntza, desberdintasun kulturalak eta negozio txiki batek hemen nola funtzionatzen duen ez jakitea.
- Gauza asko ikasi behar izan ditut: ostalaritzan profesionalki prestatzea, izapideak ezagutzea, administrazioa ulertzea eta nire denbora antolatzea.
- Denboraren kudeaketa. Jatetxeak energia handia eskatzen du, eta nire bizitza pertsonalarekin, semearen zaintzarekin eta ikasketekin konbinatu behar dut.

Laguntzak

Nire inguruko pertsonek asko lagundu didate. Jatetxe bat ireki nahi nuela esan nuenean, lagunek animatu ninduten eta oso ausarta nintzela esan zidaten. Inor ez zen saiatu ideia burutik kentzen. Vietnamgo familia ere asko poztu zen, eta lagundu egin zidan.

Pertsonek bihotzez lagundu didatela sentitzen dut. Horrek ere pentsarazten dit, nik norbaiti lagundu ahal badiot, egin nahi dudala.

Udaletxean enpresak sortzen laguntzeko zerbitzu batekin jarri ninduten harremanetan.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Gipuzkoan ekintzailetza behatzen dudanean, aniztasun handia ikusten dut. Emakumeak eta gizonak daude, hemengo pertsonak eta beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonak. Uste dut edonork ekin dezakeela bere buruarengan konfiantza badu, bere burua prestatzen badu eta bere proiektua kudeatzen ikasten badu.

Jendeak negozio berriak pozik hartzen dituela ere sentitzen dut. Lokal bat irekitzen denean, jendeak jakin-mina sentitzen du, hurbildu egiten da eta probatu egin nahi du. Ni ere zoriontsu egiten nau norbaitek negozio bat irekitzen duela ikusteak. Pentsatzen dut: “Zorionak, felicidades”. Oso polita da, ekimen bakoitzaren atzean amets bat dagoelako.

Pertsona batzuek uste dute seguruagoa dela besteren kontura lan egitea, baina uste dut bakoitzaren bizitzaren, ikasketen eta pentsatzeko moduaren araberakoa dela.

Ekimena

INDAR 2023an sortu zen, gizarte, kultura eta lan integraziora bideratutako irabazi asmorik gabeko elkarte gisa. Aniztasunetik, inklusiotik eta irisgarritasunetik lan egitea da gure helburua, laguntza sareak sortuz.

Gure proiektu nagusia Askotariko Emakumeen Komunitatea da, jatorri, adin eta egoera desberdinetako emakumeentzako gune segurua, non beharrak partekatzen diren, laguntza eskaintzen den, lanerako orientazioa ematen den eta laguntza-sareak sortzen diren. Gainera, hitzaldiak, mahai-inguruak eta komunikazio proiektuak antolatzen ditugu, hala nola Un mar de voces incómodas podcasta.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Nire bokazioari lekua emateko beharretik sortzen da, eta, aldi berean, soldata bat izateko beharretik. Ez enplegu arruntak, ez enplegu babestuak, ez zuten nirekin kontatu nik behar nuen moduan. Horregatik, elkartea eta irakaskuntza uztartzen ditut, eta egiten dakidana eta maite dudana profesionalki garatzeko modu baten bila jarraitzen dut.

Bestalde, coachinga ezin du edonork ordaindu, eta niri bereziki emakume desberdinekin lan egitea interesatzen zitzaidan. Hortik sortu zen elkartea: krisi existentzial batean niri balio izan zidaten eta aurrera egiten lagundu zidaten tresnak beste pertsona batzuekin partekatzeko beharretik.

Niretzat, beste pertsona batzuei beren prozesu pertsonaletan, profesionaletan edo ikaskuntzakoetan laguntzea nire bizi-proiektuaren funtsezko zati bat da. Orain gizarteratzera oso bideratuta banago ere, coaching tresnak erabiltzen jarraitzen dut. Gainera, uste dut ekintzailetzak ez duela adinik. 40 eta 50 urtetik gora ere bizitza dago, eta guretzat zentzua duten proiektuak eraikitzeko eta ekiteko eskubidea ere badugu.

Erreferenteak

- Nire izeba bat, oso gazte zela ekin ziona. Andaluziatik zetorren, ikasi eta ile-apaindegi bat jarri zuen.
- Komunitatean aurkitzen ditudan emakume desberdinak. Askok oso istorio gogorrak dituzte, eta indarraren eta erresilientziaren benetako adibideak dira.
- Nire ama.



Erronkak

- Finantziazioa. Proiektu sozial bat duzunean finantzaketa behar duzu, baina askotan ez da iristen behar duzunean eta ez duzu beste diru sarrerarik.
- Dosifikatzen ikasi.
- Proiektuaren igoerak eta jaitsierak kudeatzea.
- Benetan irisgarria den espazio bat aurkitzea, gure gauzak utzi ahal izateko, “gurea” izan dadin.
- Irisgarritasuna. Erakundeetatik edo gune feministetatik jarduerak antolatzen direnean ere, askotan gonbidatzen gaituzte, baina ez da kontuan hartzen benetan sar gaitezkeen edo parte har dezakegun.
- Ekintzailetzarako aholkularitza aurkitzea, irabazi-asmorik gabeko elkartea izanik.

Laguntzak

- Hasieratik proiektuan konfiantza izan zuten hiru pertsonak.
- Parte hartzen duten pertsonen feedbacka: gustura sentitu dela adieraztea, podcasta gustatu zaiola edo, azkenean, normalean kontatzen ez den errealitate bat entzun duela.
- ERES Gipuzkoa, ASPEGI, ekintzailetza-inkubagailua eta bidean ezagutzen dituzun pertsona zoragarriak.



Ekintzailetza Gipuzkoan...

Gipuzkoan ekintzailetzaren iruditeria oso maskulinoa dela uste dut. Pertsona ekintzaile bat pentsatzen dugunean, 30 edo 40 urteko gizon bat irudikatzen dugu, arrakastatsua, lidergoa duena, zuria, heterosexuala eta gizonezkoen negozio bati, teknologiari edo salmentei lotua. Ez dugu imajinatzen dibertsitate funtzionala duen emakume bat, 50 urtetik gorakoa eta proiektu sozial bat garatzen duena.

Hala ere, uste dut gure ekintzailetzak funtsezko lekua duela gizartean. Soziala humanoa da, eta horixe behar dugu gizarte gisa aurrera egiteko. Emakumeak ekintzaile eta profesional gisa erreferente izatea lortu behar dugu, neskek eta gazteek beraientzat ere posible dela pentsa dezaten.

Iruditeria horretan diskriminazioa dago: emakumeekiko, adin jakin batekiko eta dibertsitate funtzionalarekiko. Askotan, gure ustez ekoitzi dezakegunaren arabera neurtzen gaituzte, eta gaitasuna ukatzen digute. Emakumea bazara, frogatu egin behar duzu; gainera, adin jakin bat edo desgaitasunen bat baduzu, etengabe erakutsi behar duzu ahal duzula. Eta hori nekagarria da. Ez dugu bat etorri behar: hemen egoteagatik dagoeneko parte gara.

Horregatik uste dut aniztasun handiagoa behar dela erreferenteetan. Aniztasun funtzionala dugun emakumeok beti existitu gara, nahiz eta historiak askotan ikusezin bihurtu gaituen. Espazio feministetan, ekintzailetzan eta gizartean presente egon behar dugu, ez bakarrik guretzat, baizik eta atzetik datozenek ere hor egon daitezkeela jakin dezaten.

Ekimena

Gure helburua lurraldeko zaintza-beharrak kalitatezko zerbitzuak emanez asetzea da, eta, aldi berean, zaintzan profesionalki aritzen garen pertsonen lana duintzea.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Nire motibazio nagusietako bat lan egonkorra lortzea zen. Urte luzez etxe-zerbitzuan eta etxez etxeko laguntza-enpresetan lan egin nuen, hamabost edo hogeita hamar eguneko kontratuekin. Covid-az gaixotu nintzenean ia hiru hilabete egon nintzen kobratu gabe, kontratua amaitu zitzaidalako eta baja bat hartzeko eskubiderik ez nuelako. Egoera horrek pentsarazi zidan lan egiteko beste modu bat behar genuela, egonkortasun eta eskubide gehiagorekin.

Baina ez zen kontu pertsonala bakarrik. Beti egokitu izan zait ikustea zaintzan lan egiten zuten emakumeen egoera txarra, batez ere internak. Nik ere interna bezala lan egin behar izan nuen ikasten ari nintzela, eta badakit zein gogorra den.

Maitelanen, gure lan egoera eta egoera ekonomikoa hobetzea lortzen badugu, horrek eragina izatea emakume langile guztiengan. Adibidez, 2024tik joan-etorriak lanordu gisa ordain ditzakegu. Ez diogu erabiltzaileari kobratzen, erakundeak bere gain hartzea lortzen dugu. Niretzat hori bizi-kalitatea ere bada.

Argi daukat nire bizitza proiektua eraikitzen ari naizela. Aurrera egin nahi dut, egiten dugun lanean profesionalizatu eta baldintzak hobetu, ez bakarrik niretzat, baizik eta guztiontzat. Ideia horrek indarra eman dit gauzak zailtzen direnean jarraitzeko.

Erreferenteak

Nire erreferenteak nire esperientzietatik datoz. Ikasten ari nintzenean, GKEetan lan egin nuen eta banku komunitarioak sortzeko proiektuetan parte hartu nuen; proiektu horietan, emakumeei kapitala ematen zitzaien beren negozioak martxan jarri ahal izateko. Nik neuk ere artisautza-negozio bat izan dut. Uste dut esperientzia horiek erakutsi didatela pertsonok antolatzeko eta gure baldintzak hobetzeko gai garela.



Erronkak

- Ia ezagutzarik gabe hastea zaintza kooperatiba bat kudeatzeko moduari buruz.
- Lan ordu nahikoak lortzea, kooperatiba ekonomikoki bideragarria izan zedin.
- Gure zerbitzuen prezioa doitzea, gastu guztiak ordaintzeko.
- Aurreiritziei eta sinesgarritasun faltari aurre egitea. Leku batzuetan esaten zen kooperatiba desagertzeko sortu genuela. Bankuan ere zailtasunak izan genituen, eta bertako pertsonak bezala tratatzen ez gintuztela sentitzen genuen egoerak bizi izan genituen.
- Autozainketa. Zaintza lanak asko higatzen du fisikoki eta emozionalki. Aurre egiteko, laguntza psikologikoan eta mantentze fisikoan inbertitzen hasi gara.

Laguntzak

- Hasieran izan genuen eskualdeko teknikarien laguntza.
- Zilegitasuna eman zigun laguntza gerora iritsi zen, Agustin, Mikel eta Javier bazkide laguntzaileek moralki babestu eta aholkatu gintuztenean. Haiek gugan sinetsi zuten jende askok egiten ez zuenean, eta erabaki garrantzitsuak hartzen lagundu ziguten.
- Hernaniko Udala, bulegoa dugun lekua uzten diguna.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Latinoamerikarrak eta afrikarrak oso ekintzaileak garela uste dut. Gure herrialdeetan beti bilatu dugu aurrera ateratzeko modua, askotan Gizarte Segurantzan alta eman gabe izan bada ere. Hemen, ordea, ekitea zaildu egiten da, ezjakintasunagatik eta informazioa eskuratzeko aukerarik ez dagoelako. Batzuetan txikiak egiten gara pentsatzen dugulako besteek guk baino gehiago dakitela, edo arrazoi dutela hemengoak direlako.

Uste dut kooperatibak alternatiba bereziki garrantzitsua izan daitezkeela zaintzan lan egiten duten pertsonentzat. Uste dut kooperatibak alternatiba bereziki garrantzitsua izan daitezkeela zaintza-lanetan aritzen diren pertsonentzat. Askotan pentsatzen dugu etxe batean lan egitetik enpresa batean lan egitera pasatzea hobekuntza bat dela, baina zure lanetik etekina ateratzen duen beste norbaitentzat lanean jarraitzen duzu. Kooperatiba batean, aldiz, geure burua antolatu eta lortutako onurak langileongan bertan gera daitezen lor dezakegu.

Hori posible izateko, laguntza behar da. Ez da nahikoa ekimen bat sortzea eta gero desagertzea. Erakundeek benetan inplikatu behar dute. Gure kasuan, Beterri Buruntza eskualdearekin ari gara lanean, zaintzaileen zaintza proiektuarekin. Uste dut bide garrantzitsua dela sektorea duintzeko eta bertan lan egiten dutenen baldintzak hobetzeko.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA

Ekimena

Ardo naturalen eta garagardo basatien denda bat da, edari ekologiko eta jasangarrien alde egiten duena, batez ere ekoizle nazionalenak.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Donostiara iritsi nintzenean, ardo naturalaren merkatu garatu bat aurkitzea espero nuen, izugarri gustatzen zaidalako eta beste hiri batzuetan hazten ikusi nuelako. Hala ere, ekosistema hori ez zegoela ikusi nuen. Beraz, pentsatu nuen: ez bada existitzen, nik ekarriko dut. Ikusten nuen Donostian bazegoela behar zen guztia horrelako proposamen batek funtziona zezan. Euskal gastronomia oso lotuta dago produktuaren kalitatearekin, denboraldiarekin, jasangarritasunarekin eta ekoizteko moduarekin. Guk filosofia hori kopara eraman besterik ez dugu egiten.

Piripik oso leku handia du nire bizitzan. Batzuetan pisatu egiten du, negozio bat izateak lan eta erantzukizun handia eskatzen duelako, baina benetan maite dudan zerbaitetik bizi ahal izateko zortea dut. Niretzat, arrakastak ez du esan nahi diru asko irabazi behar denik. Oraintxe bertan, arrakasta da nire pasiotik lan egin ahal izatea, nire senarrarekin lan egitea eta gure bizitza bizi ahal izatea. Ez nuen bizitza osoan “eta egin izan bagenu?” pentsatzen geratu nahi. Aukera hori aztertu nahi genuen, eta bai ala bai bizi.

Erreferenteak

Gurekin lan egiten duten ekoizleak. Ardoa ekoizten urte asko daramatzaten pertsonak, industria konbentzionalaren kontrakorrontean doazenak eta lurrari oso lotuta bizi direnak. Beraiek egiten dutenaren bozeramailea naiz: haiek sekulako ardoak ekoizten dituzte eta istorio zoragarriak dituzte, eta nire lana istorio horiek bezeroei hurbiltzea da.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA



Erronkak

- Alderdi logistikoa eta administratiboa.
- Ekonomia. Beldur asko agertzen dira: zenbat diru suposatzen duen, nondik aterako den, erabaki zuzena hartzen ari zaren edo pauso okerra ematen ari zaren. Gaur egun, lan partziala dut, etxetik, egonkortasun pixka bat gehiago behar dugulako.
- Egin ahala ikasi. Lehenik eta behin, ibiltzen hasi behar duzu, eta gero jakingo duzu zerk funtzionatzen duen, zer behar duzun eta non dituzun gabeziak.

Laguntzak

- Gipuzkoako Sustapena.
- Nire bikotekidea. Bi gara, eta proiektuaren pisua partekatu eta erabakiak elkarrekin har ditzakegu.
- Donostiako lagunen sare oso garrantzitsu bat, zerbait behar dugunean laguntzen digutenak eta emozionalki zaintzen gaituztenak.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Ekintzailetzaren irudi nahiko zehatza dagoela uste dut, eta, neurri handi batean, gizon zuriaren profilarekin lotzen da. Gainera, askotan pentsatzen da ekiteko diru asko behar duzula. Niri, ekiten ari naizela dakitenean, galdetzen didaten lehenengo gauza da: “Nondik atera zenuen dirua?”. Eta nik pentsatzen dut: zer diru?. Gu pixkanaka hazten joan gara.

Izan ere, uste dut migratu duten pertsona askok harreman desberdina dutela ekintzailetzarekin, hutsetik hasi behar izan dutelako. Hainbeste aukera ez daudenean, askotan zuk zeuk sortu behar dituzu aukerak. Hainbat komunitatetan ikusi dut, baita Donostian ere: ezagutzen ditugun negozio asko kanpotik datozen pertsonek bultzatzen dituzte.

Nik neuk hazkunde organikoan sinesten dut, gure ardoak bezala: pixkanaka ikusten joatea zerk funtzionatzen duen eta dirua dagoenean berriz inbertitzea. Ardoarekin lan egin aurretik, sukaldean lan egin nuen, eta negozioari aplikatu diogun zerbait ikasi nuen: sukaldaritza ezin hobea diseinatu dezakezu paperaren gainean, baina sukaldean hasi arte ez dakizu ondo antolatuta dagoen. Negozio batekin ere gauza bera gertatzen da. Hasi egin behar duzu, lanean jardun, eta bidean ikasten joan.

Uste dut segurtasunari lotuago dagoen kultura bat dagoela hemen: soldata ziurtatua izatea, oporrak, egonkortasuna... Eta hori ulergarria da, baina ekintzailetzak ez dizu horrelakorik bermatzen. Zuk eraiki behar duzu, eta baliabideak behar dituzu hori egin ahal izateko. Niretzat, gainera, emigratu duenak edo bere jaioterritik joan denak badu aurretik hutsetik hasteko esperientzia bat, prozesu horri aurre egiten lagun diezaiokeena.

Ekimena

Mutiko Kristal nire bizitzako proiektua da. Egiten dudan guztia eta buruan dudan guztia horren inguruan dabil. 2021ean hasi nintzen, pandemiaren ostean. Nire amaren heriotzaren ostean, nolabait indarra eta motibazioa aurkituz. Betidanik margotu izan dut, baina orduan erabaki nuen serioago hastea eta muralgintzan jardutea. Mutiko Kristal nire haurtzarora helduen ikuspegitik itzultzeko eta munduari zerbait eskaintzeko modu bat da; nire kasuan, pintura tresna eta arma gisa erabiltzea. Hasieran ez nuen imajinatzen honetatik bizitzeko gai izango nintzenik.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Betidanik margotzea izan da nire motibazioa. Amak beti bultzatu ninduen gustatzen zitzaidana egitera: nik erabakitzea zer izan nahi nuen. Berarengandik bokazioz lan egitearen garrantzia ikasi nuen. Fabrika batean bi hilabete egin nituen eta argi ikusi nuen hura ez zela niretzat. Beste gauza asko ere egin ditut, baina margotzea gustatzen zaidala argi neukan. Horregatik, erabaki nuenean, etengabeko ikaskuntzan eta hobekuntzan jarri nintzen. Beti izan dut nire kabuz lan egiteko ideia eta ekintzailea izateko sean.

Oso momentu polita da nire bizitzan, nahiz eta batzuetan antsietatea eta autoexijentzia ere izan. Azkenean, oso burugogorra naiz: zerbait buruan sartzen bazait, egin egiten dut. Eta gaur egun ikusten dut horrek emaitzak ematen dituela.

Erreferenteak

Nire erreferente nagusia nire ama da. Grafitiaren munduan, berriz, Mondragoneko grafiteroak izan dira nire erreferenteak. Etxean ez nuen ordenagailurik eta garai hartan ez zegoen gaur egun dagoen informazio eta aukera kopururik; beraz, gertutik ezagutzen nituen artistengandik ikasi dut.



Erronkak

- Ezegonkortasun ekonomikoa izan da, batez ere autonomo hasi nintzenean. Hasieran ez nekien hilabete amaierara iritsiko nintzen edo gastuak ordaintzeko nahikoa izango nuen. Neure buruarengan sinestea izan da. Ez nuen sinesten egiten nuena kobratu zitekeenik.
- Nire lanari prezioa jartzea eta defendatzea ere ikaskuntza handia izan da. Hasieran nire denbora eta lana ia doan eman izan ditut, materiala ordaintzeko ere iristen ez ziren kopuruengatik. Orain badakit nire lana baloratu behar dudala.
- Autoexijentzia ere badut, beti onena eman nahi izaten dut, baina urteetan egindako lanaren bilakaera ikusteak erakusten dit ahaleginak emaitzak dituela.

Laguntzak

Familia eta lagunak beti izan ditut alboan, eta haiei esker ere iritsi naiz honaino. “Eskerrik asko aitari eta nire bikoteari beti hor egotearren”. Askotan esan didate ona naizela eta neure lanean sinestarazi didate. Herriak ere lagundu nau. Hasieran, 17-18 urterekin, azoketara joaten nintzen nire marrazkiekin, mahai batean jarrita. Jendeak nire lana ikusteko aukera ematen zidan eta hori beti gustatu izan zait. Hasieran urduri jartzen nintzen kalean margotzen nuenean, baina orain ohituta nago; margotzen ari naizenean deskonektatu egiten dut. Alde administratiboari dagokionez, autonomo egitea erabaki nuenean aholkularitza batekin hasi nintzen, burokrazia eta paper kontuak handiegiak egiten zitzaizkidalako.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Nire ustez, Gipuzkoan ekintzailetza batez ere tabernen edo industria-enpresen inguruan irudikatzen da. Artearen sektorea ez dugu ekintzailetzaren barruan ikusten, ezta guk geuk ere. Nik neuk ere ez dut nire burua ekintzaile gisa ikusten; etiketa bat dela iruditzen zait. Jendeak askotan ez du ulertzen margotzetik bizi naitekeenik.

Mural bat egiten ari naizenean galdetu izan didate ea kobratuko dudan, margotzea gustatzen zaidalako han egongo banitz bezala. Baina nik hortik bizi naiz. Artearen lana ere ofizio eta lanbide gisa ikusi beharko genuke.

Ekimena

Gehienbat etxebizitzen erreformak egiten ditut: zoruak, etxeko ateak eta bestelako konponketak. Egurra betidanik gustatu izan zait. Ia 11 urterekin hasi nintzen, eskolatik atera eta auzoko gizon baten aroztegira joaten nintzenean. 14 urterekin ikasketak utzi eta arotz lanean zentratu nintzen.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Betidanik gustatu izan zait nire erara lan egitea eta horrek bultzatu ninduen autonomo izatera. 14 urterekin hasi nintzen arotz lanetan eta 22 urterekin jada autonomoa nintzen eta nire enpresa neukan. Hona etorri nintzenean tailer batean hasi nintzen lanean. Nire lana bukatzean bezeroa pozik ikustea motibazio handia da. Egurra lantzea ere beti izan da niretzat jolasa bezalakoa: moztu, landu, forma eman, margotu...

Gustatuko litzaidake altzari gehiago egitea, baina gaur egun ez da errentagarria, jendeak beste gauza batzuk eskatzen dituelako; horregatik, erreformak eta konponketak egiten ditut batez ere.

Momo Arotzak kriston lekua okupatzen du nire bizitzan zeren egunez bakarrik ez, gauez ere lanean nago, hurrengo eguneko lanean pentsatzen. Momentu honetan nire bizitza da. Beti lanean nago. Gustoz hartzen dut, asko gustatzen zait nire lana, edozein momentutan nago mezu bat erantzuteko prest adibidez.

Erreferenteak

Ez nuen arotz izaten eskolan ikasi. Nire lehenengo erreferente auzoko gizon bat izan zen, haren aroztegian ikasi bainuen txikitatik.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA



Erronkak

- Enpresa handitzea eta mantentzea da nire erronka.
- Gastuak nola ordaindu.
- Administrazioarekin harremana eta betebeharrak.
- Lana ere ondo egitea ezinbestekoa da: gaizki egindako lana publizitate txarra da, eta ondo egindakoak bezero berriak ekartzen ditu.
- Hasiberriak engainatu nahi dituen jendearekin ere kontuz ibili behar da; niri ere baldintza oso txarrekin lan egiteko proposamen bat egin zidaten eta gero dirua kobratzeko atzetik ibili behar izan nuen.

Laguntzak

- Familia
- Errenteriako erakunde baten diru-laguntza jaso nuen.
- Nire lehengo bikotea funtsezkoa izan zen: deklarazioak, fakturak eta administrazioa egiten laguntzen zidan, nik ikasi nuen arte.
- Bere aitak ere bidelagun izan zen.
- Euskarazko komunikabideak, elkarrizketa batengatik bezeroak etorri ziren.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Nire ustetan ekintzailea izatea ausarta izatea da, enpresa sortzeak arrisku eta zalantza asko dakartzalako. Baina ez dut uste jendeak ekintzailetza hitza entzutean nire moduko ogibidea pentsatzen duenik. Eskulanak ez daude behar bezala baloratuta; gaur egun errazagoa da Leroy Merlinen zerbait erostea, eta pena da.

Bestalde, Gipuzkoan badago lanerako eskulan falta, eta etorkin askok badakite lan egiten, baina ez dute formakuntzarik edo informazio nahikorik. Aukera handia izango litzateke haiei formakuntza eta bidea ematea, batez ere iturgintza, elektrizitate edo arotzeriaren moduko lanetan. Senegaletik datozen gizonek, adibidez, badaukate jada jakintza bat, baina formakuntza falta zaie. Hizkuntza ere lehenengo oztopoa izaten da.

Nik gaztelera zortzi hilabetetan ikasi nuen eta euskara lanean ikasi dut, jendearekin hitz eginez, baina pertsona bakoitzak bere denbora behar du.

Ekimena

Elur Etxea antzerki-konpainia bat da. Antzerki sozialeko ikuskizunak sortzen ditugu batez ere, umorearen bidez hainbat gairi buruzko gogoeta sustatzeko. Antzerkia eta musikala uztartzen ditugu, euskaraz, eta arreta berezia jartzen diegu generoari eta sexu-aniztasunari.


Ofizialki, Elur Etxea 2020an sortu zen, Esnatu Naiz kabareta estreinatu genuenean, baina berez, lehen hazia 2017an jarri nuen. Urte hartan, eszedentzia bat hartu nuen lanean. Ez nuen asmo zehatzik buruan, urtebetez egiturarik gabe bizi nahi nuen. Sormena niretzat oso garrantzitsua zela konturatu nintzen garai hartan. Horrekin batera, antzezlan baterako ideia bat bururatu zitzaidan: Beyoncé izan nahi duen gizonezko baserritarraren istorioa. Gidoia idazten hasi, nire antzerki-irakasleari, Amancay Gaztañagari laguntza eskatu eta 2020an, Donostiako antzerki-jaialdi batean aurkeztu genuen kabareta.

Ekiteko eta aurrera jarraitzeko motibazioak

Proiektua urratsez urrats sortu zen, hainbat bulkadaren bidez: lehenik gidoiaren lehen bertsioa idatzi nuen; gero, kabareta sortzea erabaki nuen; estreinaldiaren ondoren, ordea, ikuskizunaren balioaz jabetu nintzen. Emanaldiak herri txikietan eskaintzearekin batera, gizarteari eta LGTBI kolektiboari ekarpen bat egiten ari nintzela sentitu nuen. Horrek poz handia eragin zidan.
Esnatu Naiz kabaretarekin emanaldi ugari eskaintzeaz gain, harrera ederra izan genuen, orokorrean. Horrek arte eszenikoen munduan urratsak ematen jarraitzeko indarra eman zidan. Eta, ondoren, beste antzezlan batzuk sortu ditugu. Sex Sua musikalean, adibidez, ligatzeko aplikazioez, sare sozialez, estetikaz eta gorputz-irudiak gizartean duen pisuaz hitz egiten dugu.

Antzerkigintzan buru-belarri sartzeko beste arrazoietako bat nire garapen pertsonala izan da. Irratiko lapostu finkoa uztea erabaki nuen, nire denbora, arreta eta energia benetan motibatzen nauten gauzetan jarri nahi dudalako. Atzera begira jartzerakoan harritu egiten naiz azken urte hauetan hartu ditudan erabaki askorekin.

BANAKAKOA / KOLEKTIBOA







Erreferenteak

- Ander Lipus, euskarazko antzerki mailarik gorenera eramatea lortu duelako.
- Agurtzane Intxaurraga, 35 urte baino gehiago daramatza lanean jo eta ke bere antzerki-konpainian, Hika Teatroan.
- Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ibilbidea benetan inspiragarria da niretzat. Harrigarria da lortu dutena
- Yogurina Borova ere asko miresten dut. Aitzindari izan da gure artean eta gaur egun oraindik esparru berriak lantzen jarraitzen du, umeentzako ikuskizunak sortzen, adibidez.

Erronkak

- Arte eszenikoen esparruan lan egiten dugunok baldintza duinak izatea aldarrikatu nahi dut.
- Gizartearen aldetik babesa lortzea, jende askok ez duelako antzerkia ikusteko ohiturarik ezta interesik.
- Esparru pertsonalaren eta profesionalaren arteko muga hobeto zehaztea, sarritan zaila egiten baitzait biak ezberdintzea.

Laguntzak

Gehitu eta Mugen Gainetik elkarteen babesa ezinbestekoa izan da niretzat. Harrotasunaren Antzerkia programaren baitan emanaldi ugari eskaini ditugu. Horrez gain, nerabeei zuzendutako programa bat jarri genuen martxan elkarrekin, antzerkiaren bitartez generoa eta sexu-aniztasunaren gaiak eskoletan lantzeko.

Kutxa Fundazioaren Sorlekua mentoretza-programan parte hartzea ere oso garrantzitsua izan da niretzat. Elur Etxea ekonomikoki bideragarria izateko aholkularitza eman didate, besteak beste. Bide batez, nire proiektuak gizarteari egiten dion ekarpenaz hobeto jabetzeko balio izan dit programa horretan parte hartzeak.

Ekintzailetza Gipuzkoan...

Ekintzailetzak indar handia du Gipuzkoan, nire ustez. Esparru anitza da, alor asko hartzen dituena. Elur Etxea bezalako egitasmoek hutsune bat betetzen dutela iruditzen zait. Orokorrean, jendeak gure lana eskertzen du. Aitortza hori, ordea, ez dator bat errealitatearekin. Gizartearen aldetik badago kontzientzia kolektibo bat, baina oraindik lan handia dugu aurretik arte eszenikoak benetako lanbidetzat hartzeko.

Gure ikuskizunak ez dira produktu komerzial moduan sortu, baina publikoarentzat erakargarriak izatea nahi dugu. Beraz, sortzerakoan oreka mantentzen saiatzen naiz: interesa pizten didaten gaiak landuz eta, aldi berean, ikusleak ahaztu gabe.

ONDO RIOAK

Ekintzaile hauek entzutean argi geratzen da **ekintzailetza ez dela ibilbide bakar eta homogeneoa**. Bere forma hainbat aldagai baldintzatzen dute: adinak, jatorriak, lana-arloak, motibazioak, generoak eta izaera juridikoak, besteak beste.

Ekiteko arrazoiak anitzak dira: bokazioa edota amets bat gauzatzea, langabeziari, lan-ezegonkortasunari, gaixotasun bati edo lan-merkatuan aurkitutako oztopoei erantzutea, besteak beste. Beraz, ez da beti aurrez diseinatutako negozio-ideia baten emaitza; batzuetan, bizitzako egoera zehatz baten aurrean sortutako aukera edo beharra da.

Elkarrizketatutako pertsona askorentzat, **ekitea norberaren aldeko apustua egitea da:** beren gaitasunetan sinestea, aurretik egindako ibilbideari balioa ematea eta beren lana egiteko era aukeratzea. Askok ez dute beren burua beste lan batean irudikatzen, salbu eta lan horrek beren ekintzailetza egitasmoa ekonomikoki sostengatzeko aukera ematen badie. Denbora antolatzeko askatasuna, erabakiak hartzeko autonomia, familiarekin bateragarritasuna eta norberaren balioekin bat datorren jarduera garatzea dira gehien baloratzen dituzten alderdiak.

Askatasun horrek, ordea, badu ordainik. Entzun ditugun ahotsetan maiz agertzen da erronka ekonomikoa: ziurgabetasuna, diru-sarrera irregularrak, bezeroen edo kontratazioen mendekotasuna eta gastuei aurre egiteko kezka. Horrez gain, norberaren proiektuaren ardura osoa hartzeak lana eta bizitza pertsonala bereiztea zailtzen du, bereziki hasierako urteetan. Sormenarekin edo arlo sozialekin lotutako jardueretan, gainera, lana eta nortasuna estuki lotuta egon daitezke. Batzuentzat bereizketa hori ia ezinezkoa da, proiektua ekintzailearen **bizimodua edo bizitza-proiektua** baita. Horregatik, mugak jartzea, norbere burua zaintzea eta atseden hartzea ekintzailetzaren erronka nagusietakoak dira.

Ekintzailetzaren izaera bakarka eta kolektiboaren arteko muga ere ez da beti argia. Proiektu batzuk formalki indibidualak badira ere, **ia inork ez du benetan bakarrik ekiten.** Bakardadea sentitzen dute momentu askotan, baina gehienek esaten dute badakitela ez daudela bakarrik. Familia, bikotekidea, lagunak, lankideak, bezeroak, beste ekintzaile batzuk eta sektoreko profesionalak ezinbesteko sostengu-sareak dira. Sare horiek laguntza emozionala ematen dute, baina baita informazioa, kontaktuak, aholkuak eta erabakiak hartzeko konfiantza ere. Proiektu kolektiboetan, bestalde, erantzukizunak eta lan-karga partekatzeko aukera nabarmentzen da, baita erabakiak modu horizontalagoan hartzeko eta bestelako lan-harremanak eraikitzeko nahia ere. Nolanahi ere, elkarrizketek argi erakusten dute ekintzailetzaren irudi indibidualista ez datorrela bat errealitatearekin: proiektu pertsonal baten atzean ere komunitate bat egon ohi da.

Erreferenteei dagokienez, familiak presentzia handia du. Elkarrizketatutako askok guraso, aitona-amona, osaba-izeba edo bestelako senide ekintzaileak izan dituzte, eta haiengandik jaso dituzte ofizioarekiko interesa, lanerako jarrera edo norberaren kabuz jarduteko aukera erreala dela ikusteko eredua. Etxeko erreferente horiez gain, arloko profesionalak, lagunak eta beste emakume edo beste pertsona migratu ekintzaile batzuk ere garrantzitsuak dira. Erreferenteek inspirazioa eskaintzeaz gain: “posible da” erakusten dute, zalantzak argitzen dituzte eta norberaren gaitasunetan sinesten laguntzen dute. Horrenbestez, **erreferente anitzak eta gertukoak ikusgai egitea ezinbestekoa da pertsona gehiagok beren burua ekintzaile gisa irudikatu ahal izateko.**

Elkarrizketatutakoek ez dute beren burua “ekintzaile” hitzarekin identifikatzen, bereziki artearen, kulturaren, eskulangintzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan lan egiten dutenek. Ekintzailetzaren iruditeria nagusia oraindik ere hazkunde ekonomikoarekin, teknologiarekin eta lorpen handiko enpresariekin lotzen da. Elkarrizketetan, ordea, arrakasta ez da diru asko irabaztea edo enpresaren etengabeko hazkundea soilik. **Arrakasta da gustuko lanetik bizi ahal izatea**, lasaitasunez bizitzea, familia zaintzeko denbora izatea, lan-baldintza duinak sortzea, komunitatea eraikitzea, beste pertsonei laguntzea eta norberaren balioekin bat datorren zerbait egitea. Ikuspegi horrek proiektuen ekarpen soziala, kulturala eta komunitarioa aitortzen du.

Ekintzailetzan, **pertsona guztiak ez dira abiapuntu beretik hasten**. Emakumea, migratua, adin jakin batekoa edo desgaitasun duen persona izateak proiektuaren zilegitasuna behin eta berriz frogatu behar izatea ekar dezake. Horregatik, ekintzailetza ezin da ahalegin indibidualaren bidez soilik azaldu: baliabide ekonomikoek, babes-sareek eta gizarte-posizioak baldintzatzen dituzte pertsona bakoitzaren aukerak.

Erakundeei dagokienez, **ekintzailetza bultzatzeko programak**, dirulaguntzak eta mentoretza-proiektuak lagungarriak izan dira hainbat kasutan, gakoak beste batzuetan ere bai. Hala ere, administrazioarekiko harremana, burokrazia eta informazio falta ohiko oztopoak dira, eta jasotako arreta langilearen edo erakundearen araberakoa izan daitekeela hautematen dute ekintzaile hauek. Gainera, arloen artean alde handiak daude: jarduera batzuetan lehia eta bezeroak lortzeko zailtasun nagusitzen dira; beste batzuetan, elkarren arteko babesa, bakardade profesionala edo finantzaketa falta. Horregatik, laguntza **sektore eta egoera bakoitzera egokitu behar dira**, eta ez lirateke proiektua sortzeko unera mugatu behar: jarraipen iraunkorra eskaini beharko luke.

Azken batean, ekitea ez da ausardia indibidualaren edo pasioaren emaitza hutsa. Bokazioa, beharra, aurretiko esperientzia, sareak, baliabideak eta testuinguru soziala elkartzen dituen prozesua da. 15 ekintzaile hauek ozenki esan digute:

“Ekintzailetza sostengatzeko norberaren gaitasunetan sinestea beharrezkoa da, baita aurreiritzi eta jarrera diskriminatzaile eza, zaintza, komunitatea, informazio ulergarria eta baldintza material duinak izatea ere.”

AHOLKUAK

Argitu proiektuaren zergatia eta zertarakoa, zehaztu helburuak eta egin urratsez urratseko plan bat.

Sinetsi zeure buruarengan, zure ibilbidean eta dagoeneko eskuratu dituzun gaitasunetan. Ez utzi inori zure lanari balioa kentzen.

Informatu, galdetu eta baliatu inguruko prestakuntza-, finantzaketa- eta aholkularitza-baliabideak. Ikasi aurretik bidea egin duten pertsona eta erakundeengandik.

Ez ekin bakarrik: osatu talde ona eta inguratu zaitez babesa, zaintza eta iritzi zintzoak eskainiko dizkizuten pertsonez. Bereziki baliagarria da beste emakume ekintzaileen sareekin bat egitea.

Izan pazientzia; ekintzailetza maratoi bat da, eta proiektuak pixkanaka hazten eta eraldatzen dira.

Onartu une zailak eta sakrifizioak egongo direla. Pasioa, ilusioa eta egiten duzunarekiko konpromisoa izango dira une horietan sostengua.

Egin lan ona, zaindu bezeroekiko harremana, gozatu prozesuaz eta mantendu jarrera baikorra. Beldurrak ez zaitzala geldiarazi.

Ez neurtu arrakasta diruaren arabera soilik: amets bat gauzatzea, komunitatea sortzea, harremanak eraikitzea edo sinesten duzun horretan lan egitea ere arrakasta dira.

Bilatu gustuko duzun lanetik bizitzeko modua, baina lana eta bizitza orekatuz, gainerako alderdi pertsonalak galdu gabe.

Hasi, dena prest edo perfektu izan arte itxaron gabe; gauza asko bidean ikasten dira.

SOR GIN LORE dot. IMPACT HUB Donostia GIPUZKOA Foru Aldundia · Diputación Foral